

## **AIAKO HARRIA PARKE NATURALA HANDITU NAHI DUGU!**

### **AIAKO HARRIA PARKE NATURALA DENA**

1995eko apirilaren 11n izendatu zen Aiako Harria Parke Naturala (241/95 Dekretua). Fitxa teknikoaren arabera 6.913 ha.ko azalera du eta Irun, Oiartzun, Errenteria, Donostia eta Hernaniko lurak hartzen ditu. **Babesturiko lurralde horren %80 publikoa da**, gainontzekoa pribatua. Parkeko ikurra eta izena ematen diona Aiako Harriko granitozko batolitoa da, askok mendi horri aitona deritzote, duela 270 milioi urte inguru sortzen hasi baitzen, Euskal Herriko beste mendi guztiak baino askoz lehenago. Naturgunea ekialdean Bidasoa ibaian hasi eta Urumearaino iristen da mendebaldetik. Hegoaldean, Nafarroarekin egiten du muga eta hor ditu besteak beste San Antongo urtegia, Artikutza eta Añarbeko urtegia. **Parkea izendatzeko orduan dituen habitat naturalak, fauna eta flora ez ezik geologia eta paisaia ere kontuan hartu ziren. Azpimarratzekoak dira Añarbeko hariztia, Enderako amezti eta baso mistoa, Bianditzeko pagadi azidofiloa, Enbidoko ingurua Irustako ur-jauziarekin, erromatar garaiko Arditurriko mehategiak...** Europa mailan babesturiko habitat ezberdinak ditu eta mehatxaturiko flora eta fauna espezie ugari: izokina, sai arrea, sai zuria, belatza, arrano txikia, okil beltza, muturluzea, bisoia, basakatua, suge berde-horia...

### **AIAKO HARRIA PARKE NATURALAK FALTA DUENA**

Bere garaian, **mugak finkatzeko orduan lur-jabetza hartu zen kontuan, lur pribatuak saihestuz**. Hortaz, plano gainean ezarri ziren **mugek ez dute erakusten batere koherentziarik**, ez geografia ezta ekologia aldetik. **Hegoaldeko muga**, Nafarroarekin dugun berbera izanik, orohar naturala eta gutxi gora-behera **lineala den bitartean, iparraldekoa laberintu suertatzen da**, eten gabeko sartu-irtenekin. Gainera, **habitat-motak ez ziren aintzat hartu**, lur-eremuaren jabetzak pisu handiagoa izan

zuelarik. Horrela, toki batzuetan babesaren eman zaie pistei edo pinu-landaketei, kanpoan utziz aldameneko bertako habitatei, hariztiak edo ibar-basoak kasu.

**Parkeak kanpoan uzten du neurri handi batean baserriaren eremua, beheko lur-sail ugari, non landa zabala, zelaiak, sega-belardiak, larreak, ibar-basoak, hariztiak eta baso mistoak, besteak beste, uztartzen diren. Europa mailan babesturiko habitatak batzuk, baina denak biologikoki aberatsak.**

## **ALDARRIKATZEN DUGUNA ETA ZERGATIK**

Azaldutakorengatik **Aiako Harria Parke Naturaleko mugak nahiz inguruko babes-gerrikoa zabaltzeko deia egiten dugu** eta hala eskatu zaie formalki eskumena duten Erakunde guztiei: **Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia** eta inplikaturiko Udalei (**Irun, Oiartzun, Errenteria, Astigarraga, Donostia eta Hernani**). Gure ustez, arrazoirik gabe kanpoan geratu ziren lurak babestu eta **interes handiko** eremu zein **habitatentzako etorkizuna bermatu behar dugu**. Gure helburua biodibertsitatearen kontserbazioari bultzada handia ematea da eta aldarrikatzen dugu zilegia delako. **Aiako Harria zabalduz** eta muga koherente eta garbiak jarritz, **landa ingurunea, baserria ere, sustatzen ari gara**. **Naturguneak ezin dira isolaturiko uharteak izan** eta hemen proposatzen den zabalketa babesguneen arteko komunikazioa erraztuko luke. Horrekin lotuta, **Aiako Harria eta Jaizkibel arteko korridore berdea, Gaintzurizketakoa, sortu eta babestu behar dugu, ezinbestekoa da** eta.

Ingurune naturala eta biodibertsitatea kontserbatzeko eta sustatzeko neurriak hartu behar direla jasota dago lege eta arau ezberdinetan. Lehentasuna ematen zaio testu legaletan. Aldi berean Gizarteak naturgune gehiago eskatzen ditu eta babes zorrotzagoa. Bizi-kalitatea aldarrikatzen du eta hemen aurkeztzen den eskaera horretara doa, hori du helburu. Ekiogu ba!

**Donostian, 2012ko urriaren 28an.**